# zinema

## Araba

### GASTEIZ

■ AZUL 1. Espia como puedas: 17:30 - 19:15. Diabólicas: 21:00 - 22:50.
■ AZUL 2. El cartero y Pablo Neruda: 17:30 - 20:00 - 22:30.
■ GURIDI. Intimo y personal: 17:30 - 20:00 - 22:30.
■ GURIDI. Eraser: 17:30 - 20:00 - 22:30.
■ GURIDI. El holandes errante: 17:30 - 20:00 - 22:30.
■ GURIDI. La roca: 17:15 - 20:00 - 22:45.
■ GURIDI. Duro de matar: 17:15 - 20:00 - 22:45.
■ GURIDI. Sostiene Pereira: 17:15 - 20:00 - 22:45.
■ MIKELDI. Twister: 17:30 - 20:00 - 22:15.
■ MIKELDI. La roca: 17:30 - 20:00 - 22:30.
■ MIKELDI. Eraser: 17:30 - 20:00 - 22:30.
■ MIKELDI. Striptease: 17:30 - 20:00 - 22:30.
■ MIKELDI. Sargento Bilko: 17:30 - 20:30 - 22.30.
■ MIKELDI. Twister: 17:30 - 20:00 - 22:30.
■ SAMANIEGO. Vaya par de idiotas: 17:30 - 20:00 - 22:30.
■ SAMANIEGO. La mujer del puerto: 17:30 - 20:00 - 22:30.
■ SAMANIEGO. Mi colega Dunston: 17:30. El sustituto: 20:00 - 22:30.
■ SAMANIEGO. Pon un hombre en tu vida: 17:30 - 20:00 - 22.30.

## Bizkaia

### BILBO

■ AVENIDA. Striptease: 11:15 - 17:00 - 19:30 - 22:00.
■ AVENIDA. Twister: 11:15 - 17:00 - 19:30 - 22:00.
■ AVENIDA. Eraser: 11:15 - 17:00 - 19:30 - 22:00.
■ AVENIDA. Intimo y personal: 11:15 - 17:00 - 19:30 - 22:00.
■ AVENIDA. La roca: 11:15 - 17:00 - 19:30 - 22:00.
■ AVENIDA. Duro de matar: 11:15 - 17:00 - 19:30 - 22:00.
■ CAPITOL. Twister: 17:00 - 19:45 - 22:30.
■ CAPITOL. Misión imposible: 17:15 - 20:00 - 22:30.
■ CAPITOL. Eraser: 17:15 - 20:00 - 22:30.
■ CAPITOL. Striptease: 17:00 - 19:45 - 22:30.
■ CONSULADO. Intimo y personal: 17:15 - 17:45 - 22:15.
■ IDEALES 1. Striptease: 17:00 - 19:45 - 22:30.
■ IDEALES 2. La roca: 17:00 - 19:45 - 22:30.
■ IDEALES 3. Sostiene Pereira: 17:15 - 20:00 - 22:30.
■ IDEALES 4. Diabólicas: 17:15 - 20:00 - 22:30.
■ IDEALES 5. Intimo y personal: 17:00 - 19:45 - 22:30.
■ IDEALES 6. Duro de matar: 17:30 - 20:00 - 22:30.
■ IDEALES 7. Eraser: 17:00 - 19:45 - 22:30.
■ IDEALES 8. Dersu Uzala (El cazador): 17:00 - 19:45 - 22:30.
■ MIKELDI. Twister: 17:30 - 20:00 - 22:30.
■ MIKELDI. Hackers: 17:30 - 20:00 - 22.30.
■ MIKELDI. Cuando salí de Cuba: 17:30 - 20:00 - 22:30.
■ MIKELDI. La roca: 17:00 - 19:45 - 22:30.
■ MULTI 1. Más alla de las nubes (JBA): 17:15 - 19:45 - 22:15.
■ MULTI 3. Fargo: 17:15 - 19:45 - 22:15.
■ MULTI 4. Pon un hombre en tu vida: 17:30 - 20:00 - 22:30.
■ MULTI 5. Antonia's line: 17:30 - 19:45 - 22:30.
■ MULTI 6. La familia Stupid: 17:30 - 20:00 - 22:30.
■ MULTI 7. Espia como puedas: 17:30 - 19:45 - 22:30.
■ MULTI 8. Abierto hasta el amanecer: 17:30 - 20:00 - 22:30.

### ALGORTA

■ GUREA. Diabolicas: 17:00 - 20:00.

### AREETA

■ GRAN CINEMA. The war: 17:00 - 22:00 (etengabeko emanaldia).

### BARAKALDO

■ MAX CENTER. Eraser: 16:45 - 19:45 - 22:30.
■ MAX CENTER. Duro de matar: 17:15 - 20:00 - 22:30.
■ MAX CENTER. Twister: 16:45 - 19:45 - 22:30.
■ MAX CENTER. Jumanji: 17:15.
■ MAX CENTER. Hackers: 17:00 - 20:00 - 22:30.
■ MAX CENTER. La roca: 16:45 - 19:30 - 22:30.
■ MAX CENTER. Intimo y personal: 16:45 - 19:45 - 22:30.
■ MAX CENTER. Espía como puedas: 17:30.
■ MAX CENTER. Striptease: 16:45 - 19:45 - 22:30.
■ MAX CENTER. Mi colega Dunston: 17:30.
■ MAX CENTER. Misión imposible: 17:00 - 19:45 - 22:30.
■ MAX CENTER. Diabólicas: 16:45 - 19:45 - 22:30.

### BASAURI

■ SOCIAL ANTZOKIA. Ace Aventura 2: Operacion Africa: 18:00 - 20:00 - 22:30.

### DURANGO

■ ZUGAZA. Un loco a domicilio: 19:00 - 22:00.

### ONDARROA

■ BIDE ONERA. Días de fortuna: 19:30 - 22:30.

### PORTUGALETE

■ COLISEO JAVA. Un loco a domicilio: 11:30. Striptease: 17:30 - 19:45 - 22:00.

### SANTURTZI

■ SERANTES. Eraser: 17:15 - 19:45 - 22:15.
■ SERANTES. Vaya par de idiotas: 17:15 - 19:45 - 22:15.
■ SERANTES. Mision imposible: 17:15 - 19:45 - 22:15.

## Gipuzkoa

### DONOSTIA

■ ASTORIA 1. Eraser: 17:30 - 20:00 - 22:45.
■ ASTORIA 2. La Roca: 17:00 - 19:30 - 22:15.
■ ASTORIA 3. Twister: 17:00 - 19:30 - 22:15.
■ ASTORIA 4. Diabólicas: 17:30 - 20:00 - 22:45.
■ ASTORIA 5. La huida del inocente: 17:30 - 20:00 - 22.45.
■ ASTORIA 6. Striptease: 17:30 - 20:00 - 22:45.
■ ASTORIA 7. The war (La guerra): 17:00 - 19:30 - 22:15.
■ ANTZOKI ZAHARRA. Dersu Uzala (El cazador): 17:00 - 19:45 - 22:30.
■ PETIT CASINO 1. Duro de matar: 17:30 - 20:00 - 22:30.
■ PETIT CASINO 2. Espía como puedas: 17:15. Fargo: 19:30 - 22:15.
■ PETIT CASINO 3. Misión imposible: 17:15 - 19:30 - 22:15.
■ TRUEBA 1. Twister: 17:15 - 19:45 - 22:15.
■ TRUEBA 2. Sostiene Pereira: 17:15 - 19:45 - 22:15.
■ PRINCIPE 1. El holandes errante: 17:00 - 19:30 - 22.15.
■ PRINCIPE 2. La roca: 17:00 - 19:40 - 22:20.
■ PRINCIPE 3. Adosados: 17:30 - 20:00 - 22:30.
■ PRINCIPE 4. Striptease: 17:30 - 20:00 - 22:30.
■ PRINCIPE 5. Eraser: 17:00 - 19:30 - 22:15.
■ PRINCIPE 6. Vivir rodando: 17:30 - 20:00 - 22:30.

### ARRASATE

■ ALAI. Misión imposible: 19:00 - 21:30.

### EIBAR

■ RIALTO. Twister: 19:30 - 22:15.
■ UNZAGA. Striptease: 19:30 - 22:15.

### ERRENTERIA

■ ONBIDE. Mision imposible: 19:30 - 22:30.

### IRUN

■ AVENIDA. Eraser: 17:00 - 19:30 - 22:15.

### TOLOSA

■ LEIDOR. Fargo: 19:30 - 22:30.

### ZARAUTZ

■ MODELO. Donde reside el amor: 19:30 - 22:15.

## Lapurdi

### BAIONA

■ L'ATALANTE: Fargo: 16:30 - 18:30. Créatures célestes: 20:30. Crash: 22:30.
■ VAUBAN: Le professeur foldingue: 14:00 - 19:45 - 22:15.
■ VAUBAN. Hommes, femmes mode d'emploi: 14:30 - 19:45 - 22:15.
■ VAUBAN. Les voleurs: 14:30 - 19:45 - 22:15.
■ VAUBAN. Pluie de roses sur Manhattan: 14:30 - 19:45 - 22:15.
■ VAUBAN: Decroche les etoiles: 14:30 - 19:45 - 22:15.
■ VAUBAN. L'ultime souper: 14:30 - 19:45 - 22:15.
■ MARINE. Twister: 14:30 - 19:45 - 22:15.
■ MARINE: The rock: 14:30 - 19:45 - 22:15.
■ MARINE: L'effaceur: 14:30 - 19:45 - 22.15.
■ MARINE. Striptease: 14:30 - 19:45 - 22:15.
■ MARINE: Derniere danse: 14:30 - 19:45 - 22:15.
■ MARINE: Pédale douce: 14:30 - 19:45 - 22:15.

### MIARRITZE

■ ROYAL: Hommes, femmes mode d'emploi: 14:30 - 19:45 - 22:15.
■ ROYAL: Les voleurs: 14:30 - 19:45- 22:15.
■ ROYAL: Beautiful thing: 14:30 - 22:15.
■ ROYAL: Twister: 19:45 - 22:15.

## Nafarroa

### IRUÑEA

■ CARLOS III. Twister: 17:30 - 20:00 - 22:30.
■ GOLEM (Baiona). Striptease: 17:15 - 20:00 - 22.30.
■ GOLEM. Misión imposible: 17:15 - 20:00 - 22:30.
■ GOLEM. Los teleñecos en la Isla del Tesoro: 17:30. Diabólicas: 20:10 - 22:45.
■ GOLEM. La roca: 17:15 - 20:00 - 22:30.
■ GOLEM. Eraser: 17:30 - 20:10 - 22:45.
■ GOLEM. Twister: 17:30 - 20:10 - 22:45.
■ GOLEM (Yamaguchi). Sostiene Pereira: 16:30 - 18:30 - 20:30 - 22:45.
■ GOLEM. Jeffrey: 16:30 - 18:30 - 20:30 - 22:45.
■ GOLEM. Antonia's line: 16:30 - 18:30 - 20:30 - 22:45.
■ GOLEM. Dersu uzala (El cazador): 17:00 - 19:45 - 22.30.
■ ITURRAMA. Intimo y personal: 17:30 - 20:15 - 22:30.
■ ITURRAMA. La familia Stupid: 17:30. Días de fortuna: 20:15 - 22:30.
■ ITURRAMA. El holandes errante: 17:30 - 20:00 - 22:30.
■ ITURRAMA. El techo del mundo: 17:30 - 20:15 - 22:30.
■ ITURRAMA. Abierto hasta el amanecer: 17:30 - 20:15 - 22:30.
■ OLITE. Punto de impacto: 17:30 - 20:00 - 22:30.
■ OLITE. Pon un hombre en tu vida: 17:30 - 20:00 - 22:30.
■ OLITE. La roca: 17:15 - 20:00 - 22:45.
■ OLITE. La carrera del sol: 17:30 - 20:00 - 22:30.
■ PRINCIPE DE VIANA 1. Striptease: 17:30 - 20:00 - 22:30.
■ PRINCIPE DE VIANA 2. Eraser: 17:30 - 20:00 - 22:30.
■ PRINCIPE DE VIANA 3. Duro de matar: 17:30 - 20:00 - 22:30.

## Zuberoa

### MAULE

■ MAULE BAITHA. L'Effaceur: 20:15.

---

## ■ STRIPTEASE

**Jatorrizko izenburua:** Striptease. **Zuzendaria:** Andrew Bergman. **Gidoia:** Andrew Bergman. **Argazkia:** Stephen Goldblatt. **Musika:** Howard Shore. **Aktoreak:** Demi Moore, Burt Reynolds, Armand Assante, Ving Rhames. Estatu Batuak, 1996.



Demi Moore aktorea *Striptease* filmeko une batean.

## *Patetikoa*

HAMAIKA JIRABUELTA eman dizkiot buruari Andrew Bergmanek idatzi eta zuzendu duen pelikula honek eragin dizkidan inpresioak laburbil litzakeen kalifikatibo jakin bat aukeratzeko, ikusleari nire iritzia ahalik eta erarik ondratuenean eskaintzeko asmotan. Hasiera batean, esperpentotik astrakanadara jo dut zer edo zer aurkituko nuelakoan, baina azkenean patetismora bihurtu zait pentsamendua, ia nahi gabe, pelikulako sekuentziez gogoratze hutsarekin. Inoren lotsa sortzeko moduko patetismoak osabetetzen baitu filmea, goitik behera osabete ere. Patetismoa gidoian, patetismoa antzezlanetan eta are patetismo patetikoagoa eszena pornografiko ustekoetan, Demi Mooreren agerpen omniszientea patetismoaren buru dela. Horixe da nire ustea behintzat.

Gidoiaren patetismoa bi adarretara zabaltzen da. Alde batetik, Demi Mooreren luzimendu propiora makurtzen da, honen ego puztua aplakatu ahal izateko; ekoizleek 1.500 milioi dolar ordaindu dituzte haren exhibizionismoaren truke, eta beraz hark izan behar derrigorrean pelikulako protagonista bakar. Bestetik, argumentuak hamaika hari desberdin bildu nahi ditu matazara, zer demontre kontatu nahi duen ere garbi utzeke; pertsonaiak ez dira pertsonaia ere, eta nekez asma daitezke nork bere jarrera justifikatzeko hartzen dituen jokabideak. Gainera, Bergmanek puzzle aldrebestua osatzeko saioa egiten du, melodramatik komedia beltzera, hemendik fartsara eta ostera ere sentimendu faltsuen malkoetara ganorarik gabe bihurtzeko. Eta txisteak zein ateraldi desberdinak, jakin eta ikusiegiak dira honezkero.

Interpretazioak ere patetikoak iruditzen zaizkit. Demi Moore beti izan da oso aktore mugatua eta hemen horixe bera frogatzen du atzera. Burt Reynoldsen patetismoa askoz penagarriagoa da ordea, inor gutxik antzeman baitezake bere buruari egiten dion autoparodiaren jabe den ala ez aktorea; batzuetan Marlon Brandoren imitatzaile negargarria dirudi, eta besteetan Dolly Partonen ondoan txorakeria franko egiten zituen haren mozorro deformatua. Armand Assantek gordetzen du soilik planta, baina berak antzeztutako pertsonaia hain da alferrekoa ezen inork ez dakien zer arraio egiten duen narrazioaren erdian, beste estatu bateko polizia izaki.

Eta amaitzeko, pseudopornografiaren patetismoa, Demi Mooreren eta honen lagunen gorputz biluziak lekuko. Pelikula urik gabeko poltsa bero baten antzekoa da, ene irudiko. Demi Moorek gorputz lerdena izan dezake agian —azala tira-tira eginda duen panpina plastifikatua iruditzen zait niri—, baina apenas duen sentsualtasun apurrik filmean dantza egin eta ikuslearen libidoa pizteko. Bere mugimenduak trakets eta baldarrak dira eszena exhibizionista bat interpretatzeko, eta, gainera, Bergmanek erotismoz blai busti nahi dituen eszenak zinez tristeak dira. Eta ez dago erotismo tristea baino gauza tristeagorik.

D.H. Lawrencek zioen batzuentzat pornografia zena besteentzat jeinuaren irribarrea zela. *Striptease* hau, ezer izatekotan, ikuslearen morbo gosearen kontura egindako irribarrea baizik ez da. Harpajotze aspergarri eta patetikoa, nire iritziz. Batek gogokoago du *Showgirls*, aukeran.

***A. Gostin***